

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

**ARAUA MOLDATZEKO PROPOSAMENA, EHBILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA,
ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ORDENANTZARI**

EH Bildu udal taldeak aztertzeko aurkezten ditu araua aldatzeko ondoko proposamenak, helburu izanik Covid-19ak kaltetutako donostiarrek laguntzea:

Aldatzea Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga Ordenantza, 12. artikuluari (Hobariak) hiru puntu GEHITUTA, oinarria izanik maiatzaren 12ko 3/2020 Foru Dekretu-Araua, toki-erakundeentzako aurrekontu eta zerga arloko hainbat neurri ezartzen dituen:

7.- % 100eko hobaria izango dute Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren kuotan, baldin eta gizarte alokairuko etxebizitzetan edo erakunde bereko beste produktu babestuetan bizi badira bizikidetzaren unitateak, eta urtean 25.500 € haztatu baino gutxiago –edo gizarte alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko kopuru baliokidea– jasotzen badute.

8.- % 25eko hobaria, Covid-19ak eraginda, 2020. urteko egoera ekonomikoa hein berean kaltetu zaien eta 2019ko errenta erabilgarria 30.097 € edo txikiagoa izan zuten bizikidetzaren unitateei.

9.- % 90eko hobaria, Errenta Zaharreko (1989ko maiatzaren 5a baino lehenagoko alokairu kontratuak) etxebizitzetako maizterrei, baldin eta larrialdiko laguntza ekonomikoren bat eskuratzen ari badira.

Donostia, 2020ko abuztuaren 6an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko bozeramailea